



**Baztango
Udala**

Deialdi publikoa, Baztanen gizarte arloko proiektuak eta jarduerak burutzen dituzten irabazi-asmorik gabeko talde, kolektibo eta elkarteei diru-laguntzak emateko. 2025 urtea.

Convocatoria de subvenciones a grupos, colectivos y asociaciones sin ánimo de lucro que desarrollen proyectos y actividades sociales en Baztan. Año 2025.

BAZTANEN GIZARTE ARLOKO BASES PARA LA CONCESIÓN DE PROIEKTUAK ETA JARDUERAK BURUTZEN SUBVENCIONES A GRUPOS, COLECTIVOS Y DITUZTEN IRABAZI-ASMORIK GABEKO ASOCIACIONES SIN ANIMO DE LUCRO QUE TALDE, KOLEKTIBO ETA ELKARTEEI DIRU- DESARROLLEN PROYECTOS Y ACTIVIDADES LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2025 SOCIALES EN LA ZONA DE BAZTAN. AÑO URTEA 2025.

1. XEDEA

1ª. OBJETO

Deialdi honen xedea da Baztanen esku hartu eta gizarteratzea sustatzen duten irabazi-asmorik gabeko talde, entitate, kolektibo eta elkarteei diru-laguntzak emateko sistema ezartzea.

Diru-laguntzen helburua dira prebentzioaren, laguntzaren, aisia eta denbora librearen eta gizarteratzearen arloko lana eginez herritarren ongizatea bultzatuko duten programak sustatzea; hots, espresuki kolektibo ahulei, behar bereziak dituztenei edo gizarteratzeko zailtasunak dituztenei zuzenduta dauden programak sustatzea.

Beti ere diru laguntzaren xedea entitateak babestea da eta ez osorik finantzatzea. Hau da, entitateek bertze diru iturriak izan beharko dituzte egitasmoak aitzinera ateratzeko.

La presente convocatoria tiene por objeto establecer el sistema de concesión de subvenciones a los grupos, entidades, colectivos y asociaciones sin ánimo de lucro que intervengan en el Valle de Baztan y que fomenten la integración social.

Las subvenciones tendrán como finalidad apoyar entidades que incidan en el desarrollo del bienestar social de la ciudadanía, expresamente dirigidos a colectivos desfavorecidos, con necesidades especiales o dificultades de integración a través de actividades de prevención, asistencia, ocio y tiempo libre e incorporación social.

El objetivo final de la subvención será apoyar en la financiación a las entidades. Nunca financiar en su totalidad la entidad.

2. BALDINTZAK

Baztanen egoitza izanik, Baztanen bertan esku hartzen duten talde, entitate, kolektibo eta elkarteak dira diru-laguntzen xede. Edota, egoitza Baztandik kanpo izanik ere, Baztanen dihardutenak.

- Irabazi-asmorik ez izatea.

-Prebentzioaren, laguntzaren, gizarte-laguntasunaren, aisia eta denbora librearen eta gizarteratzearen arloko lana egiten dutenak. Eta gutxienez, aurreko urtean ekintza edo proiekturen bat garatu izana.

- Behar bezala erregistratuak daudenak Nafarroako Gobernuko Elkartearen Erregistroan. Baldintza hau betetzen ez badute, 10 egun izanen dute erregistroa gauzatzeko.

- Zerga-betebeharrak Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren ordainduak izatea. Ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

- Baztango Udalarekin zorrik ez izatea, Udalak ofizioz ziurtatuko du.

2ª. REQUISITOS

Serán objeto de subvención los grupos, entidades, colectivos y asociaciones que con sede en el Valle de Baztan intervengan en el Valle de Baztan. O con sede fuera de Baztan pero que intervengan en Baztan.

- No tengan fines lucrativos.

-Desarrollen actividades de prevención, asistencia o acompañamiento social, ocio y tiempo libre o incorporación social. Y que el año anterior, como mínimo hayan ejecutado alguna actividad o proyecto en Baztan.

- Que se hallen debidamente inscritas en el Registro de Asociaciones del Gobierno de Navarra. Si no cumplen este requisito, tendrían un plazo de 10 días para formalizar el registro.

-Estar al corriente en el pago de las obligaciones fiscales en Hacienda y Seguridad Social. Presentar los justificantes.

-Estar al corriente de pagos con el Ayuntamiento de Baztan. De oficio el Ayuntamiento contrastará esta información.

3. PARTE HARTZEKO DEBEKUAK

Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta ez dute parte hartuko deialdi honetan:

1. Pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta beren helburuak edo helburuak, onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolaketa edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren aurkakoak badira.

2. Pertsona fisiko eta juridikoak, baldin eta berdintasunerako eta sexuagatiko bereizkeriarik ezarako eskubidea urratzeagatik, soldata-bereizkeriagatik, sexu-jazarpenagatik edo jazarpen moral edo sexuagatiko beste edozein tratu desberdinengatik administrazio-bidean,

3ª. PROHIBICIONES PARA CONCURRIR

No podrán participar y estarán excluidas de la concurrencia en la presente convocatoria de subvención:

1. Las personas físicas o jurídicas cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.

2. Las personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas o condenadas en firme en vía administrativa, laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación

lan-bidean edo bide penalean irmo zehatuak edo kondenatuak izan badira.

3. Genero-berdintasunari buruzko legerian ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten erakundeak edo enpresak.

4. Sexuagatik zuzenean edo zeharka diskriminatzen duten jarduerak ere ezin izango dira diruz lagundu.

por razón de sexo, o por discriminación salarial, o por acoso sexual o moral, o por cualquier otro trato desigual por razón de sexo.

3. Las entidades o empresas que incumplan las obligaciones establecidas en la legislación sobre igualdad de género.

4. Tampoco podrán ser subvencionadas aquellas actividades que discriminen de manera directa o indirecta por razón de sexo.

4. ESKABIDEAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

4ª. LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

Proiektuak, behar bezala beterik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua betez, eskaerak Baztango Udalaren erregistro elektronikoaren bidez izapidetu beharko dira, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko **30** egun naturalen epean.

Batzordeak agiriren bat falta dela uste badu, Baztango Udalak 10 eguneko epea utziko du, jakinarazi eta biharamunetik aitzina, falta diren agiriak aurkeztu eta egindako akatsak zuzentzeko; hori, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluekin bat. Eskatutako hori ez bada emandako epean betetzen, eskabidea artxibatu eta eskatzaileak atzera egin duela ulertuko da.

En cumplimiento del artículo 14 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas las solicitudes se deberán tramitar a través del registro electrónico del ayuntamiento de Baztan los siguientes 30 días naturales a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Navarra.

Si la comisión considera la falta de alguna documentación el Ayuntamiento del Valle de Baztan, de acuerdo con el artículo 69 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, conferirá un plazo de 10 días, a partir del día siguiente a la notificación para presentar aquella documentación omitida o para subsanar el defecto presentado. En el caso de que no se dé cumplimiento a este requerimiento en el plazo conferido, se archivará la petición y se tendrá por desistida a la peticionaria.

5. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

5ª. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

Proiektuek datu hauek jasoko dituzte:

Los proyectos presentados deberán reflejar los siguientes datos:

- Eskabide orokorra (eskaera ofiziala). -*Instancia General (solicitud oficial)*

- Entitate eskatzailearen datuak. -*Datos de la entidad solicitante.*

- Proiektuaren jendarte-interesa: -*Interés social del proyecto:*
 - ✓ Burutu beharreko Proiektuaren edo jardueraren izenburua (proiektuaren edo jardueraren funtsa, zer helburu bete nahi diren, burutu beharreko jarduera zehatzak, zer metodologia erabili behar den proiektua garatzeko, eta zer giza baliabide, baliabide material eta finantza-baliabide dauden eskura huraxe burutzeko). ✓ *Título del Proyecto o actividad a desarrollar (fundamentación del proyecto o actividad, objetivos que se persiguen con su desarrollo, actividad/es concretas a desarrollar, metodología a utilizar para su desarrollo, recursos humanos, materiales y financieros con los que se cuenta para su puesta en práctica).*
 - ✓ Proiektuaren xede diren herritarren behar berariazkoak. Datuak sexuaren arabera bereizita eman beharko dira. ✓ *Necesidades específicas de la población a la que se dirige el proyecto. Los datos deberán estar desagregados por sexo*
 - ✓ Non burutu behar den. ✓ *Lugar donde se va a realizar.*

- Alderdi ekonomikoak: -*Aspectos económicos:*
 - ✓ Entitateak zer baliabide material eta finantzario dituen huraxe burutzeko. ✓ *Recursos materiales y financieros con los que cuenta la entidad para su puesta en práctica.*
 - ✓ Proiektuko jarduera bakoitzaren aurrekontua zehatz-mehatz; atal hauek, nahitaez, adierazita: ✓ *Presupuesto detallado de cada una de las actividades que componen el proyecto, haciendo constar obligatoriamente los siguientes apartados:*
 - Gastuen aurrekontua: jardueren arabera. -*Presupuesto de gastos: según actividades*
 - Diru-sarreraren aurrekontua. -*Presupuesto de ingresos*
 - ✓ Udaletik gutxi gorabehera kobratu nahi den diru-kopurua. ✓ *Cantidad aproximada que se desea cobrar del Ayuntamiento*
 - ✓ Aipatu proiektua garatzeko bertze erakunde batzuek eman beharreko diru-laguntzak, haien zenbatekoak eta erakundeen izenak. ✓ *Subvenciones a percibir por otros Organismos para el desarrollo del proyecto señalado cuantía y organismo concreto.*
 - ✓ Entitateak erabiliko dituen bitarteko ekonomikoak. ✓ *Medios económicos que destina la entidad.*
 - ✓ Jarduera bera egiteko aurkeztu dituen diru-laguntza eskaerak. Ez da bateragarria bi kontu-sail eskatzea Udalari jarduera berbera egiteko. Bateragarria izanen da, ordea, bertze entitate batzuen diru-laguntzekin. ✓ *Las diferentes solicitudes de subvención que ha presentado para la misma actividad. No siendo compatible solicitar dos partidas al Ayuntamiento para realizar una misma actividad. Sí será compatible con subvenciones de otras entidades.*
 - ✓ Banku edo aurrezki kutxako ziurtagiria, kontu korrontearen zenbakia eta IFZa jasoko dituen diru-transferentzia egiteko. ✓ *Certificado de banco o caja de ahorros en el que conste el número de cuenta corriente y CIF de la entidad a*
- 2025ean, Baztanen egindako ekintzen

memoria. (Aurreko urteko diru-laguntzen eskaeran justifikaziorik aurkeztu ez bada)

efectos de realizar la transferencia económica.

-Memoria descriptiva de las actividades realizadas en Baztan en el 2025 (si no se presentó con la justificación de la subvención)

6.EBALUAZIO IRIZPIDEAK

6º. CRITERIOS DE EVALUACIÓN

Diru-laguntzak emateko proposamena balioetsi eta egiteaz arduratuko den Batzordeak kide hauek izanen ditu: gizarte-zerbitzuetako zinegotzia eta alderdi bakoitzeko zinegotzi bat; eta teknikarien aldetik, gizarte zerbitzuko langile bat eta berdintasunerako teknikaria. Batzordeak egokitzen jotzen duen informazioa eskatzen ahalko die elkarteei eta, era berean, elkarrizketa bat eskatu elkarte bakoitzarekin, inbertsioen eta jardueren jarraipena egite aldera. Konpromisoak ez betetzeagatik, eta Batzordeak beharrezkotzat jotzen badu, diru-laguntza geldiarazteko eta itzultzeko eskatuko dio elkarteari, honako arrazoi hauek direla medio, eta gainera, hurrengo deialdietatik kanpo geldituko da:

- a) Diru-laguntza jasotzea baldintzak bete gabe.
 - b) Dokumentazioa epe barnean ez aurkeztea.
 - c) Udaleko hainbat alorretatik laguntza jasotzea jarduera berbera ordaintzeko.
 - d) Nahitaez egin behar diren egiaztapenak errefusatzeko edo oztopatzeko.
- Era berean, beharrezkotzat jotzen diren teknikarien laguntza eskatzen ahalko da, aurkezten diren proiektuen azterketa, ebaluazioa eta haien jarraipena egiten laguntzeko.

Batzorde Ebaluatzaileak alderdi hauek hartuko ditu kontuan, diru-laguntzak emateko:

La Comisión encargada de valorar y realizar la propuesta de concesión de las subvenciones estará formada por la concejalía de servicios sociales y un/a representante electo/a de cada partido; y del equipo técnico, una profesional en representación del equipo del servicio social y la técnica de igualdad. Esta Comisión podrá requerir a las asociaciones aquella información que estime oportuna, así como solicitar entrevista personal con cada una de ellas para poder realizar seguimiento de las inversiones y acciones realizadas, si se considera necesario por incumplimiento de lo comprometido, se solicitará la paralización y posterior devolución de la subvención por las siguientes causas y además quedará excluida de futuras convocatorias:

- a) Recibir la ayuda sin cumplir los requisitos exigidos.*
- b) No presentar la documentación dentro del plazo fijado para ello.*
- c) Recibir de diferentes departamentos municipales para costear una misma actividad.*
- d) Rechazar o entorpecer las verificaciones a las que están obligados.*

Asimismo, podrá solicitarse la incorporación del personal técnico que se considere preciso, para ayudar en el estudio, evaluación y seguimiento de los distintos proyectos que se presenten.

La Comisión Evaluadora valorará para la

- a) Proiektuaren interes soziala: onuradun kopurua, zerbitzuen deszentralizazioa, zerbitzuaren erabiltzaileen ezaugarriak, eskualdean dauden baliabideak eta aipatu Proiektuarekiko osagarritasuna, etab. Orik 5era arteko puntuazioa emanen da: 0 puntu, profil bakar batekin eta ekintza zehatz batekin lan egiten duen entitatearentzat. 5, berriz, erabiltzaileen profila zabaltzen eta ekintza sorta zabala eskaintzen duen entitatearendako.
- b) Entitateak duen aurreikuspena Baztango herritarrek, oro har, sentsibilizatzeko ekintzak egite aldera. 0-tik 1era arteko puntuazioa emanen da: 0 puntu, sentsibilizazio-ekintzarik aurreikusi ez duenarendako, eta 1, berriz, sentsibilizazio-ekintzak aurreikusi duten entitatearendako. Ekintza hauek Baztango udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza bete beharko dute, bereziki arlo horri dagokion 41. artikulua.
- c) Burutu beharreko jarduerak duten osagarritasuna maila profesionalean egin eta jarduketa osoak sustatzen dituen gizarte-lanarekin. Orik 5era arteko puntuazioa emanen da: 0 puntu, funtzionamendu profesionala duten entitateei, eta 5, berriz, ahalik eta boluntario gehienekin diharduten entitateei.
- d) Proiektuaren bideragarritasuna. 0-tik 1era arteko puntuazioa emanen da: 0 puntu, diru-sarrera iturri bakar baten mende dauden entitateei, eta puntu 1, berriz, diru-sarrera iturri bat baino gehiago dutenei.
- e) Proiektuan edo jardueran genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez, gehien ere 6 puntu emango dira proiektua edo jardura honako ekintza hauen arabera gauzatzeko
- concesión de las subvenciones los siguientes aspectos :*
- a) El interés social del Proyecto: número de personas beneficiarias, descentralización de los servicios, características de las personas usuarias del servicio, los recursos existentes en la zona y la complementariedad con dicho proyecto...etc. Se puntuará entre 0-5: 0 para la entidad que sólo trabaje con un perfil y una acción concreta. 5 para la entidad que amplía el perfil de usuarias y usuarios y ofrezca amplia variedad de acciones.*
- b) La previsión que tenga la Entidad para realizar acciones de sensibilización para la población general del Valle de Baztán. Se puntuará entre 0-1: 0 para quien no prevé acciones de sensibilización y 1 para las entidades que prevé acciones de sensibilización. La actividad de sensibilización tendrá que cumplir la ordenanza del Euskara, en especial en referencia al artículo 41.*
- c) La complementariedad de las actividades a desarrollar con el trabajo social realizado a nivel profesional que favorezca las actuaciones integrales. Se puntuará entre 0-5. 0 a las entidades con funcionamiento profesional y 5 a las entidades que funcionen con el mayor número de personas voluntarias.*
- d) La viabilidad del proyecto. Se puntuará entre 0-1. 0 puntos a quien sólo dependa de una única fuente de ingresos y 1 punto para quien complemente las fuentes de ingreso.*
- e) En cuando a la integración de la perspectiva de género en el proyecto o actividad, se valorará hasta con 6 puntos por el compromiso de ejecutar el proyecto o actividad conforme a las siguientes*

konpromisoagatik:

-Egoeraren diagnostiko bat eta/edo proiektuaren justifikazio bat egiten den, emakume erabiltzaileen behar espezifikoak edo haien eskubideak identifikatu eta kontuan hartuko dituen. (2 puntu)

-Emakume erabiltzaileen eskubideekin eta/edo beharrekin zuzenean lotutako helburuak ezartzen diren. (2 puntu)

-Diagnostikoan edo hasierako justifikazioan identifikatutako emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei zuzenean helduko dieten ekintza eta jardura espezifikoak ezartzeagatik. Emakumeen bizi-baldintzak espezifikoki hobetuko dituzten eta haien premia praktikoei erantzuniko dieten ekintzak izan daitezke; edo genero-rolak aldatzera eta/edo emakumeentzako zerbitzuetarako sarbidea bermatzera bideratutako jarduerak. (2 puntu)

acciones:

- Si se realiza un diagnóstico de situación y/o una justificación del proyecto que identifique y contemple las necesidades específicas de las mujeres usuarias o en relación a sus derechos. (2 puntos)

- Si se establecen objetivos directamente relacionados con los derechos y/o las necesidades de las mujeres usuarias. (2 puntos)

- Por el establecimiento de acciones y actividades específicas que aborden directamente las desigualdades entre mujeres y hombres identificadas en el diagnóstico o justificación inicial. Podrían ser acciones que mejoren específicamente las condiciones de vida de las mujeres y respondan a sus necesidades prácticas; o actividades orientadas a modificar los roles de género y/o garantizar el acceso a los servicios para las mujeres. (2 puntos)

7. FINANTZAKETA

7ª FINANCIACIÓN

Diru-laguntza honen finantzaketa Baztango Udaleko Gastuen Aurrekontuetako 1-2311-4820000 "DIRU-LAGUNTZA ONGINTZAZKO ERAKUNDEENDAKO" kontu-sailarekin ordainduko da, 30.000,00€-ko diru kopurua duena.

Diru-laguntzaren banaketa egiteko diru-sailaren diru izendapen osoa zatitu egingo da eskatzaile guztiek batera lortutako puntuazioaren artean.

Lortutako kopuru hori eskatzaile bakoitzak lortutako puntuazioarekin biderkatuko da. Emaita hau izanen da eskatzaile bakoitzari dagokion diru-laguntza.

Adibidez:

Diru-saileko diru izendapen osoa: 30.000 €

Puntuazio osoa: 50 puntu

La financiación de esta subvención se hará con cargo a la partida 1-2311-4820000 "SUBV.ENTIDADES

BENEFICAS,ACC.SOCIAL,." del Presupuesto de Gastos del Ayuntamiento de Baztan, dotada con una cantidad de 30.000,00 €.

El reparto de la subvención se hará dividiendo la dotación total de la partida presupuestaria entre el total de puntos obtenidos entre todas las solicitudes. La cifra obtenida se multiplicará por los puntos obtenidos por cada solicitud. Este resultado será la cuantía concedida a cada solicitante.

Ejemplo:

Dotación de la partida presupuestaria: 30.000 €

Puntuación total: 50 puntos

A eskatzailea : 10 puntu
B eskatzailea: 10 puntu
C eskatzailea: 25 puntu
 $30.000 / 50 = 600$

- Solicitante A : 10 puntos
- Solicitante B: 15 puntos
- Solicitante C: 25 puntos
 $30.000 / 50 = 600$

Bakoitzari dagokion diru-lagutza:

A eskatzailea: 10 puntu : $600 \times 10 = 6.000$ €
B eskatzailea: 15 puntu : $600 \times 15 = 9.000$ €
C eskatzailea: 25 puntu : $600 \times 25 = 15.000$ €

Cuántía concedida:

A eskatzailea: 10 puntu : $600 \times 10 = 6.000$ €
B eskatzailea: 15 puntu : $600 \times 15 = 9.000$ €
C eskatzailea: 25 puntu : $600 \times 25 = 9.000$ €

8. ESKAEREN EBAZPENA

8ª. RESOLUCIÓN DE LAS SOLICITUDES

Laguntzen eskaerei buruzko ebazpena emateko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzordea da. Balorazio batzordearen proposamena aztertu ondoren emanen du organo eskudunak bidezko ebazpena, eta interesdunei jakinaraziko die diru-laguntza eskatzeko epea akitzen den egunetik hiru hilabeteko epean, gehienez.

Emandako diruaren %100 ordainketa bakarrean ordainduko da eta jasoko duten diru kopurua gastua justifikatu ondoren egingen da. Ekintza eta justifikazioa 2025 urtekoa izan beharko da. Justifikazioak Baztango udal erregistroan edo bertze entitate publikoen erregistro ofizialetan egin beharko da. Ez dira emailera igorritako justifikazioak onartuko.

Entitateei ez zaie justifikatu duten baina diru kopuru handiagorik emanen.

Deialdi honetan aurreikusten diren diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagokako araubidearen bidez tramitatuko da, aurkezten diren eskaerak erkatuz, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legeak dioen bezala.

La Resolución de las solicitudes de subvención se llevará a cabo por la Junta de Gobierno Local una vez estudiada la propuesta de la Comisión de Valoración. Esta Resolución se notificará a las partes interesadas en el plazo máximo de 3 meses desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

El abono de la cantidad otorgada se hará en un único pago, abonando el 100% de la cantidad concedida una vez se justifique el gasto realizado. La ejecución y justificación serán del 2025. La justificación se presentará en el registro del Ayuntamiento u otros registros oficiales. No se admitirán las justificaciones recibidas en el email del servicio social, necesitarán estar registradas.

El pago nunca superará la cuantía justificada.

El procedimiento de concesión de las subvenciones previstas en esta convocatoria se tramitará en régimen de concurrencia competitiva, mediante la comparación de las solicitudes presentadas, de conformidad con la Ley 38/2003.

9. DIRU-LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

9ª. JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

Baztango Udalaren diru-laguntza

Los grupos, colectivos y asociaciones cuyos

eskuratzen duten talde, kolektibo eta elkarteek konpromisoa hartzen dute diruz lagundutako proiektu gauzatuaren gaineko azken memoria aurkezteko Baztango Udalaren erregistroan, 2026ko urtarrilaren 15a baino lehen, eta honako hauek jasoko dira:

a. Egindako jardueraren memoria zehatza, datuak sexuaren arabera desberdinduak aurkeztu behar dira.

b. Entitateko buruak edo behar bezala egiaztatutako eskuordetza duenak sinaturiko eskabidea, Udaleko Alkateari idatzia.

c. Onuradunaren zinpeko aitorpena, frogagiri gisa aurkeztu dituen fakturak diruz lagundutako jardueran aplikatu direla azaltzen duena.

d. Emandako diru-laguntzaren kopuru osora iristen diren fakturak. Fakturen baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Jatorrizkoak edo Udaleko Idazkariak konpultsatutako kopiak izatea.

- Jaulkitzailearen NANA edo IFZa, izena eta helbide soziala edukitzea.

- Fakturaren zenbakia eta jaulkipen eguna; egun hori jarduera garatu den aldikoa izanena da, ezinbertzean.

- Jardueraren deskribapena.

- Diruz lagundutako gastuen ordainketa frogatzen duten egiaztagiria (banku-transferentziak, hartu-agiriak, edo ordainketak modu frogagarrian egiaztatzen dituen bertze edozein egiaztagiri).

e. Jarduerak sortutako gastuen zerrenda eta dokumentazio idatzia.

f. Bertze entitate publiko nahiz pribatu batzuek emandako diru-laguntzen zerrenda.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak izanen dira jarduerak edota funtzionamendugastuak sortutakoak (langilerik badute soldatak erraterako).

Organo emaileak egiaztatuko ditu, laginketa bat eginez, bidezkotzat jotzen dituen egiaztagiria, diru-laguntza egoki

proyectos sean subvencionados por el Ayuntamiento del Valle de Baztan, se comprometen a presentar en el registro Ayuntamiento de Baztan una memoria final de la ejecución del Proyecto subvencionado antes del 15 de enero de 2026 en el que se recogerán:

a. Memoria detallada de la actividad realizada. Habrá que presentar los datos de sexo desagregados.

b. Instancia suscrita por el presidente o la presidenta de la entidad o quien tenga conferida la delegación de forma debidamente acreditada, dirigida al Alcalde o Alcaldesa del Ayuntamiento.

c. Declaración jurada de la persona beneficiaria en la que se acredite que las facturas que se presenta como justificantes se han aplicado a la actividad subvencionada.

d. Facturas por un importe equivalente al importe total de la subvención concedida que tendrán que cumplir los siguientes requisitos:

- Ser originales o fotocopias compulsadas por el Secretario o la Secretaria del Ayuntamiento.

- Contener el DNI o NIF de la persona emisora y nombre y razón social de la misma.

- Nº de factura y fecha de emisión que deberá coincidir con el período en el que se haya desarrollado la actividad.

- Descripción de la actividad.

- Justificantes que acrediten el abono de los gastos subvencionados (transferencias bancarias, recibís, o cualquier otro que acredite de forma fehaciente los pagos efectuados).

e. Relación de gastos y documentación impresa generada por la actividad.

f. Relación de subvenciones recibidas de otras entidades públicas y privadas.

Serán gastos subvencionables los

aplikatu dela arrazoiz frogatzeko. Horretarako, onuradunari eskatuko zaio hautatutako gastuen egiaztagiriak igortzeko. Epez kanpoko justifikazio kasuetan aurkezpenak ez dira aintzat hartuko.	generados por actividad y/o gasto de funcionamiento (si hubiera se incluyen las nóminas de las personas contratadas). El órgano concedente comprobará, a través de las técnicas de muestreo los justificantes que estime oportunos y que permitan obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención, a cuyo fin podrá requerir al grupo beneficiario la remisión de los justificantes de gasto seleccionados. No se aceptarán las justificaciones fuera de plazo.
--	--

10.- DIRU-LAGUNTZAK DITUEN ARAUDIA

ARAUTZEN

10.- NORMATIVA REGULADORA DE LAS SUBVENCIONES

Deialdi hau agiri honetan bildutako arauak jarraikiz egiten da eta aurreikusten ez den orotan, berriz, hurrengo araudian ezarritakoari:

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea.

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra (azaroaren 17ko 38/2003 Legea).

La presente convocatoria se regirá por las bases recogidas en este documento y en lo no previsto en él, por lo establecido en la siguiente normativa:

Ley Foral de la Administración Local de Navarra.

Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra.

Ley Foral de la Hacienda Pública de Navarra.

Ley General de subvenciones (Ley 38/2003, de 17 de noviembre).

11.- ERREKURTSOAK

11.- RECURSOS

Oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren egintzen aurka errekurtsu hauetako edozein aurkeztu ahalko da:

1.- Berraztertzeiko errekurtsua, hautara, ebazpenaren udal organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek xedatutakoarekin bat.

2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsua,

Frente a las presentes bases y los actos en ejecución de las mismas se podrán interponer los siguientes recursos:

1.- Recurso potestativo de Reposición ante el mismo órgano municipal autor de la Resolución, en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente a la notificación de la misma de conformidad con lo dispuesto en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

2.- Directamente recurso contencioso-

zuzenean arlo bereko epaitegiari edo salari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.1 artikulua agintzen duenaren arabera.

3.- Eta, hautara, gora jotzeko errekurtoa, zuzenean Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.

administrativo ante el Juzgado o la Sala del mismo orden, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la notificación de la Resolución, en virtud del art. 8.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

3.- Y, con carácter potestativo, Recurso de Alzada directamente ante el Tribunal Administrativo de Navarra, en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente a la notificación de la Resolución.